

## GIZARTEAN MURGILDURIKO FEDEA

Eleizea Frankoren garaian naiko isilik egon zala-ta, salatzen dabizanak, eurok dira gaur egunez, Eleizea baztertxo baten isilik eukiten alegintzen diranak. Guzurrezkoa dirudi baina olantxe da. Zenbat izkanbila, Eleizea politikan sartzen dala ta ez dala... Betiko istori bedeinkatua! Kolore guztietako agintariak, Eleizaren jokabidea euron gustokoa ez danean, bitxikerizko arrazoiekin saiatuko dira bere aurka. Ez daukagu sekulako gizaldietara jo bearrik, or daukaguz begien aurrean bildurgarrizko bigotedun bi: Augusto Pinochet ta Daniel Ortega. «A zelako pareta: karakola ta bareta», esan oi da. Izan be, ez dago indar arriskutsuagorik munduko agintarientzat Apostoluen berba oneek baino: «Jaungoikuaren esana egin bear da aurrena, ez gizonena» (Egiñak 5,29) Eperdiz gora jaurtiten ditu ainbat jauntxokeri. Zoritxarrez diktaturak tinko dirau eta, txarrena, ezkertiarren diktaturak ez dauke amairik. Augustotxona aurretik amaituko da, Danieltxona baino... Zozoak beleari ipur beltz..!

Franko il ondoren be, gotzaiek akonplejauta edo, momentu inportanteetan, lartxo makurtu izan dabe euren burua. Batean diktatura amiltzeko bearrezko ei zan gauza batzutan isiltzea; bestean demokrazia sendotu nairik edo ta urrengoan sozialismoaren ezperientzia, inongo oztopo barik, aurrera ataratzeko edo... Gure gotzaiek isilik ta bitartean olako edo alako «kristau talde» edo «teologu bizardun», komunikabideetan, Aita Santuaren ta Gotzaien gainetik, garaiko agintarietara saldua, «askatasun

santuaren edo progresismoaren» izenean jendea lilurutzen... Ta mamel-lelook adurra dariola...!

### Askatasun agiria

Gotzaiek euron konplejuak alde batera itzirik, dokumentu luze ta sakon bat eskeini dauskue. Gizarte pluralista ta burrukari onetan, «zelakoa izan bear dauan gaur katolikuoen ekintza erri arazoetan», izango da agiri orren mamia. Bazan olako agiri baten premia. Sarritan ez dakigu katolikuok, ainbat eritzi desberdinen artean, zein dan gure zeregina gizarte-auzietan ta or gabiltz ara ta ona dantzan. Zelako soinua, alako doinua!

Gotzaiek errealismo aundiaz oratzen deutsoe gaiari. Aurrean ditue, Blas Pascalen antzera, gizonaren paregabeko duintasuna (Jaungoikuaren irudi) baita bere makaltasuna be (pekatuaren kateak) Berealaxe saiutzen dira gaurko arriskuzko alternatiba bi gaitututen. Bata, Eleizea goitik beera orpoetaraino sartu bear litzakela arazo-publikoetan ta bestea, ezetan be ez daukola esku-biderik gauza orretan sartzeko. «Teokrazi-klerikalismo» kutsuzkoa lenengoa ta «sekularismo» utsezkoa bigarrena. Vatikano II-ren ildotik abiatuz, arrisku bi orretatik txairo urteten dabe gotzaiek.

Jaungoikuaren Erreinuko balioak lur onetan murgiltzen diranez, fededun batek ezin dau onartu bere kristau bizitza, etxeko edo sakristi inguruko arazo bezela. Kristau fedea ez badauko kulturari buruz, edo ekonomiari buruz, edo politikari buruz zer ikusirik, fede orrek egin dau berea! Ebanjelioaren argia imillaunpean jartzea izango litzake ori. Gaurko pluralismoan, Ebanjelioa ez litzake izango argi bakarra baina bai ordeztu eziñezko argi dizdiratsua. Ausarti sendozko erronka botaten deutsee argi ori amatau nairik dabizanei: «Sinisgabekeria edo materialismoa edo kristau moralaren aurka diarduen aurrean ez gara isilduko. Demokrazia ez da naazketa bat besteak zapaltzeko, guztien eskubideak errespetatu ta zaintzeko baino. Erakunde publikoetan edo erriko arazoetan katolikoei euren kristau jokabideak ukatzea, itzelezko zuzengabekeria izango litzake». Ta arrazoi

aundi au dakarre: «Jesukristo ez da bakarrik Eleizaren Jauna baita mundu osoarena be bada». Fedeak badau zer ikusia mundu onetako ekintza ta esturturekin. Zeruko bizitza oraingoaz lotuta aurkitzen da ta ezin lei apurtu lotura ori, fedea barnetik ukatu barik. Arbola baten sustrai, enbor, ta frutuak bezela, mundu onetako ekintzak betiko bezitzarekin lotuta dagoz. Agiri au, askatasunaren aldeko kantu eder bat danik, ezin ukatu. Fededunok askatasun seme-alabak garanez, ez daukagu bildurrik askatasunean jokatzeko, ezta fedebakoekin lanean egiteko be. Fededun batek badaki guztiok Aita berengandik sortuak garala. Inondik be ez dau, origaitik, sentiduko enbidirik Eleizatik kanpo bizi diranak be frutu ederrak emoten dabezala jakinik. Fededunok badakigu Jaungoikuaren Erreinua, Eleiza baino zabalagoa dana. Auzia ez da, nok egiten dauan au edo ori, zelan eginda dagon baino. «Azken baten -diñoskue gotzaiek- Jaungoikuak gizon guztien erraietan egiazko ernamina ipini izan dau ta Espirituaren eraginez frutu ederrak emoten diardu gizadiak». Batak egin, besteak egin, egin egin...

### **Katoliko laikoen zeregina**

Eleiza bere seme-alaba laikoen bitartez agertzen da, batez be, gizarte-auzietan. Euron bitartez kristautzen da gizarteko giroa: «laikoen zeregin berezigarriena ta berebizikoena auxe da: kultura mailan edo ekonomi arloan edo beste gizarte-auzietan parte artzea». Betebear au laikoena da, ain zuzen! Orrek ez dau tsoe Eleiz barruko parte artzerik ukatzen, «baina begi aurrean euki bear dabe beti gizarteko mailan lan egitea dala euren bokazio bereziena ta beste inork bete ezinezko utsunea izten dabela arlo orreetan lan egiten ez daben katoliko laikoek».

Gizarteko-auzietan, esaterako politikan, parte artzearen duintasuna gogoratzen deutsoe laikoek, naizta sarritan olako susmo eskasa egon politikan lan egiteko: «politikan parte artzea, gizonaren eginkizun gurenatariko bat da». Orretarako premiako deiaren oiartzun sentikorra ageri da dokumentu eder onen banean. Baina ez dagoz gure gotzaiek «sindikatu ta partidu politiko konfesionalen alde», erakunde orrek ezin dabelako «Ebanjelioa-

ren jaun ta jabe izan». Alderdi bateri edo besteari botoa emotea be ez da auntzaren gauerdiko estula, «momentu estu ta larri-larrietan bakarrik esan leike gotzaiek nori emon botoa». Dokumentu oneri ez jako falta ba bere konkretasunik be, batez be, irugarren zatian. Interesgarriak gainera!

Zenbat kristau laikoen biotzak zabaldu ta euren biriak aizebarrituko ete ditu gotzaien agiri eder onek? Nik neuk itzelezko pena sentitzen dot gure batzarretan ia laikoak Gure Jauna emon leiken edo Ebanjelioa mezan irakurri edo ez ta beste olako sakristiko eztabaidetan itota ikustean. Askok orretan ipintzen ei ditu Eleiza «barriaren» ekintzak. Ori bada gure kristau laikoen eginkizuna, gure Eleizak egin dau berea! Bizkaiko Eleiz Batzar Nagusian gabiltzanok, a zelako mesedea egingo geunskion gizar-teari agiri onen bidetik jarraituz!

*A. Olea*